

## Raskolnikov, plazera eta egia

**J**osi, praxiaren xumetasunetik abiatzera gonbidatu gintuzun lehengoan. Juanjo, moralaren ezinbestekotasuna erakutsi berri diguzu. Gure ekintzen eta jokabideen oinarrian moralak kokatzearen aurka aritu naiz azken bi ttakunetan.

Orain Dostoievskik sorturiko pertsonaia gogoangarri hura datorkit burura. Ezin uka Raskolnikov figura maite dudala. *Krimena eta zigorra* irakurri ez duenari laburpentxo bat eskaini beharrean nago lehenik: Raskolnikov morala norberak ezartzen duelakoan dago, hots, pentsatzen du moralak ez dela objektiboa, ez dela soziala, eta bere buruari hori frogatzeko erabakitzen du atso lukur bat erailtzea, gizarteari ezer onik ekartzen ez diolako aitzakian bermatuz. Bere asmo nihilista betetzen du bete... baina damua zain dauka muga moralaren “beste aldean”, eta errudun sentitzea, moralki errudun, gero eta jasanezinago bihurtuko zaio. Azkenean, moral objektibo batera itzuliko da, kristautasunak eskaintzen duen moralera.

Esan dut maite dudala Raskolnikov. Baina maite dut filme hollywoodiar asko maite ditudan moduan. *Superman* betiko plazer berrituaz ikusten dudana moduan. Hau da, eroso sentiarazten nauelako ikusteak nola irabazten duen onak azkenean eta nola moralak garaile ateratzen den. *Statu quo*-aren aldeko ekoizpen kulturalak direla bistan dago eta badute, egia da, bertute lasaigarriak. Gauzak beti beren onera itzultzen dira halako obretan. Baina besterik da jakitea mundu ikuskera hori egiazkoa iruditzen zaidan. Egia deserosoa da, kaotikoa delako, absurdua, injustua, bortitza. Morala, berriz, eroso, ederra, harmoniosua, ordena ezarlea. Haatik, egia moralarekin bat baletor –idealismo mota



DANI BLANCO

Mr Apalategi

Basterretxea

Olasagerre

guztiek aldarrikatzen dutenez (eta moral demokrata ere idealismo bat da)–, moralak soberran legoke, ez legoke moralaren beharrik egia defendatzeko. Morala dagoen ber susmoa pizten zait delako moral horrek babesten duen egiarekiko. Horregatik, Raskolnikovek egiten dituen galderak zirraragarri zaizkit, bere liburuaren hasierako norabiderik ezak “hitza egiten dit”, ez ordea nobelaren bukaerak. Thomas Pavel-i irakurri nion moduan, funtsean Dostoievskik nobelagile zoragarria da, baina tesi nobelak egiten zituen, sinpleki. Hori bai, inoiz idatzi diren tesi nobela zoragarrienak, irtenbide moralaren aurretiko krisia inork ez bezala zekielaiko deskribatzen. Hain da boteretsua bere idazkera ezen ahantzazten baitigu tesi nobelak direla ere.

Hortaz, plazer literarioak ez du zerikusirik egiarekin. Askotan obra gezurtienak zaizkigu atseginenak, eta gure uste edo sinesmenen aurka doazela jakin arren ez da txikiagoa izango gure plazera. Bestela ez guke hainbeste zabor kultural kontsumituko.

Homosexualen eskubideez ari zinen, bestalde, Juanjo, berriz ere moralak inbokatuz. Nik ere galdera bat egin nahi nizuke bioi hau dela eta: moralak delako lortu ote dute homosexualak ezkontzeko eskubidea? Badakigu moralak aldakorra dela, etengabe berri-dazten ari dela eta baliteke moral dominantearen azken berri-dazketak indarra eman izatea homosexualen aldarrikapenari, baina uste duzue moralak delako inposatu dela azkenean homosexualen ezkontzeko eskubidea? Ala lobby bihurtu delako –ekonomikoki boteretsua, kulturalki eragilea eta elektoraliki errentagarria–, alegia, indar sozial bat bilakatu delako?

Moralak, indarra... betikoa. ■



Badakigu moralak aldakorra dela, etengabe berri-dazten ari dela eta baliteke moral dominantearen azken berri-dazketak indarra eman izatea homosexualen aldarrikapenari, baina uste duzue moralak delako inposatu dela azkenean homosexualen ezkontzeko eskubidea?

